

4/2015 akta

OSATEK S.A. SOZETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2015eko ABENDUAREN 23an EGINDAKO BILERAREN AKTA.

Lehendakariak deituta Administrazio Kontseilua osatu da Osasun Sailak Gasteizen duen egoitzan 2015eko abenduaren 23an goizeko 10:00etan. Jarraian adierazi dira bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA

Guillermo Viñegra García jauna

BATZORDEKIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jauna

Antonio Arraiza Armendariz jauna

Fernando Aguirre De Miguel jauna

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna

Susana López Altuna andrea, idazkari-lanetan

Ezin izan duela etorri adierazi du Pedro Hernando Arranz jaunak.

GAI ZERRENDA:

1. Osatekeko zuzendari kudeatzailearen hautaketa
2. Galde-eskeak

1. Osatekeko zuzendari kudeatzailearen hautaketa

LEHENA.- 2015eko azaroaren 30ean Administrazio Kontseiluak egindako bilerako aktako gai-zerrendan, 2. puntuan, jasotakoari jarraituz, Osatekeko kudeatzaile kargurako hautagaia aukeratuko da.

Hiru hautagai aurkeztu dira kargurako. Egintza honetan itxita dauden gutun-azalak ireki dira eta curriculumak irakurri dira:

1. José Luis Gómez Etxebarria
2. Juan Bautista Echevarría Sagastagoitia
3. Josu Xabier Llano Hernaiz

BIGARRENA.- Arlo publikoaren kudeaketan duen eskarmentu profesionala eta prestakuntza, bai eta bere curriculumare ere, kontuan hartuta, aho batez erabaki dute Kontseiluaren bileran dauden kideek Josu Xabier Llano Hernaiz jauna izendatzea, eta Osatekeko Batzar Nagusiari jakinaraztea proposatu da.

HIRUGARRENA.- Azaldutakoa kontuan hartuta, Administrazio Kontseiluak honakoa erabaki du:

Josu Xabier Llano Hernaiz jaunari, Sozietateko zuzendari kudeatzaile gisa, eta bere kargua betetzen duen denboran, Osatek S.A. sozietatearen estatutuetako 18. artikuluan izendatutakoez gain, honako ahalmen hauek ematea, Kontseiluak berak adierazitako jarraibideen eta jarritako mugen arabera bete beharko dituenak:

- a) Sozietatea erantzukizun osoz ordezkatzea, epaitegietan nahiz handik kanpo, era guztietako ekitaldietan eta kontratuetan eta pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatu guztien aurrean.
- b) Sozietatearen xedea betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak egitea edo kontratuak gauzatzea, honako hauek barne direla: higiezinak eskuratu eta besterentzea eta era guztietako eskubide errealak eratu, aldatu edo azkentzea. Ahalmen hori gauzatzeko Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren alde aurreko baimena beharko da baldin eta eragiketaren bolumen osoak 90.152,82 eurotik gorako ordainketa-obligazioak kontratatzea badakar gastu arrunten edo funtzionamendu-gastuen kasuan, edo 360.607,26 eurotik gorakoa inbertsioen kasuan. EM ekipoen mantentze-gastuen kasuan, Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren alde aurreko baimena soilik eskatuko da eragiketaren balio estimatuak edo kontratuaren balioak urtean 400.000 eurotik gorako ordainketa-obligazioak kontratatzea badakar. Kopuruak Kontseiluak berak horri buruz hartutako erabakien arabera eguneratuko dira.
- c) Sozietatearentzat onuragarriak izan daitezkeen kreditu- eta mailegu-eragiketak erabaki eta gauzatzea, eta abalak eta fidantzak ematea. Ahalmen hau gauzatzeko, edonola ere, Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren alde aurreko baimena beharko da.
- d) Sozietatearen funtsak nola erabili, non kokatu eta zertan inbertitu zehaztea, eta dagokion eta Sozietatearen interesentzat komenigarria den tokitik eskatu, jaso eta kobratzea. Gordailuak eratu eta likidatzea, bankuetan edo bestelako erakundeetan kontu-korronteak ireki, mugitu eta ixtea, eskudirua edo, oro har, baloreak ateratzea, azken batean era guztietako banku-eragiketak egitea Espainiako nahiz atzerriko erakundeekin, baita Banka Ofizialarekin ere. Kanbio-letrak nahiz kredituko eta igorpeneko gainerako merkataritza-efektuak igortzea, endosatzea, abalatzea, onartzea, protestatzea, ordaintzea eta negoziatzea; eta, azken finean, banku- nahiz merkataritza-trafikoaren berezko eragiketa guztiak egitea.

Edozein efektu- eta moneta-motaren pean gauzatzeko ordainketa-eragiketa guztiak sinadura solidario bidez egingo dira, eragin horretarako Administrazio Kontseiluak eragiketa bakoitzerako ezarriko duen zenbatekoa gaudituko ez duen bolumen batera arte, eta une honetatik aldaketa egiaztatu arte 90.152,82 eurokoa izango da. Eragiketa horiek gauzatu ahal izango dituzte 22.727.708-M NAN duen Josu Xabier Llano Hernaiz gerenteak, Sozietatearen presidentea den eta 16.522.767-G NAN duen Guillermo Viñegra García jaunak edo Sozietateko kontseilaria den eta 15.915.741-V NAN duen Ignacio J. Berraondo Zabalegui jaunak, era berean eta besteak aurrean egon beharrik izan gabe. Eragiketaren

bolumena aipatutako kopuru horretatik gorakoa bada, aipatutako bi pertsonen sinadura mankomunatua beharko da gutxienez.

- e) Egoki irizten diona erabakitzea era guztietako ondasunei eta eskubideei buruz, prozedura horren premia duten auziak eskubide- edo ekitate-arbitrajearen menpe jartzeko eta Sozietateari dagozkion era guztietako eskubide, egintza, erreklamazio eta errekursoak baliatzeko gradu eta jurisdikzio guztietako epaitegi eta justizia-azitegietan nahiz Estatuko, autonomia erkidegoetako, lurralde historikoetako, probintzietako udalerrietako eta bestelako ente publikoetako agintarien eta bulegoen aurrean. Horrekin batera, auzietan letraduen eta prokuradoreen aldeko ahalordeak ematea Sozietatearen defentsa egin dezaten.
- f) Ziurtapen-zerbitzuen emaileak jaulkitako erakunde-ziurtagiria sozietatearen izenean eta ordezkaritzan eskatu eta eskuratzea, eta bere izenean eta ordezkaritzan erabiltzea harreman telematikoa guztietan. Era berean, sinadura elektronikoari buruzko 59/2003 Legearen, abenduaren 19koaren, arabera ziurtagiriak eskatu, eskuratu, berritu eta ezeztatzeko behar diren dokumentu guztiak formalizatzeko ahalmena ere ematen dio.

Sozietateko zuzendari kudeatzaileari izendatutako ahalmenek honako muga orokor hauek izango dituzte:

- a) Bere funtzio betearazle guztiak Administrazio Kontseiluak onartuko dituen irizpide eta jarraibideetara egokituko dira, eta honentzat gordeko dira, nolanhari ere, Sozietatearen gobernua ziurtatzeko beharrezko diren ahalmen guztiak.
- b) Egiten dituen kudeaketa guztien berri emango die lehendakariari eta Administrazio Kontseiluari, eragin horretarako Kontseiluak berak ezarriko dituen premia eta irizpideen arabera.

Eskritura publikoa egitea:

Zuzendari kudeatzaileari dagozkion ahalmenen zerrenda onartu da eta bilerako aktari eranskin moduan gehitu zaio, eta Sozietatearen Administrazio Kontseiluko presidentea eta idazkaria notarioaren aurrera agertzeko eta eskritura publikoa egiteko ahaldundu dira.

LAUGARRENA. – Osateken Administrazio Kontseiluko presidente Guillermo Viñegra Garcia jaunak jakinaraziko dio Osateken Batzar Nagusiari Josu Xabier Llano Hernaiz jauna izendatu dela Osatek S.A. sozietateko zuzendari kudeatzaile.

2. Galde-eskeak

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, akta hau onartu da eta bilera 12:00etan amaitutzat eman da hurrengo deialdira arte.

IDAZKARIA



Sin.: Susana López Altuna

LEHENDAKARIA



Sin.: Guillermo Viñegra García